

Psikoteknikoa

Mirari Martiarena

Gutun batek denboran atzera eramaneu. Kotxeko gidabaimena berri behar dut eta psikoteknikoa berriz egin behar dudala esanez idatzi didate. Gutuna irakurrita, nire buruak hamar urte atzera egin du. Oroitzapen pila bat etorri zaizkit. Gidabaimena lortzeko azterketa praktikoa hirugarren ahaleginean gainditu nuen, Basauriko industrialdean bikain aparkatuta. Gutunaren ondorioz, lagunarteko kontakizunetan askotan egin dut salto 2007ra eta orduko inozentziari ere barre asko egin diot.

2007an Bilbon bizi nintzen, Uribarriko ikasle pisu batean. Osteguneroko parrandek ez zuten hutsik egiten. Kazetaritzako ikaslea eta Udako Euskal Unibertsitateko

bekaduna nintzen. Markeskoako bulegotik Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan izena eman nuen eta irailean Legazpiko kanporaketan abestu nuen. Amagoia Mujikak elkarriketa egin zigun bertso eskolakooi “Bertsolari” aldizkarirako eta, oraindik, orduan bezain lotsatia naizela dio. Hamaika Bertute bertso mugimendua sortu zen eta lagun talde politarekin ibili nintzen Euskal Herriko txoko desberdinetan bertso-tan. Gidabaimena atera arte autobusekin eta trenekin moldatzen nintzen saio askotara joateko. Lantziegora joateko, adibidez, Estellesa hartu eta antolatzaileak Logroñora joan ziren bertsolarion bila.

Garai hartako lagun asko mantentzen ditut eta beste batzuen arrastorik ere ez

dut. Horixe da bizitza, arrastoa uzten dizuten pertsonen puzzlea. Hamar urte pasata, unibertsitateko lagun minen seme-alaben izeba ere banaiz, forma desberdinetan, jakina: Iurretako Hurren eta Maiaren izeko Mirari edo Azpeitiko Urritzen eta Izarren tia Milalitos. Uztailean jaioko denak zein titulu emango didan zain nago.

Hamar urtean gauzak, batzuentzat asko eta besteentzat gutxi, aldatuko ziren. Batzuentzat asko aldatuko nintzen eta besteentzat berdin-berdin nago. Gauza batzuk ongi egingo nituen, beste askotan hanka sartuko nuen. Ez diot nire buruari perfektioa eskatuko, ez bizitzan, ezta psikoteknikoan ere, baina espero dut oraindik gaitasunarekin jarraitzea. •

Halabeharraren kapritxoen menpe

Koldo Sagasti

Halabeharrak baldintzatu ditu nire bizitzako une erabakigarrienetako batzuk. Hamazortzi urte bete berrian, garai hartako usadioaren arabera, herri arrotz bateko armadan derrigorrez zerbitzatu behar ote nuen zozketa bidez erabaki nahi izan zuen norbaitek. Loteria makabro haren aurkako jarrera izan zen intsumisio mugimendurekiko nire lehenengo kontaktua eta nire kontzientzia politikoa esnarazi zuen akuilua. Gerora, urte batzuk geroago, 8812 ekimeneko militantea izan nintzen. Gasteiztar askok ondotoxogogoratuko dute hiria astindu zuen espekulazioaren aurkako herri mugimendu hura. Orduan babes ofizialeko etxebizitzaren zozketak ziren gure sala-

ketaren xedea. Izan ere, etxebizitza eskubidea dela aldarrikatzen genuen, eta nekez berma daitekeela eskubide bat merkaturaren logikaren parametroetan kokatzen den bitartean, eta erakundeek eskubideak bermatu egin behar dituztela, eta ez zozketatu.

Egun, beste oinarritzko eskubide bat datusat kolokan halabeharraren kapritxoen menpe, edo zehazkiago esanda, nire bi urteko alabaren hezkuntzarako eskubidea. Datozen egunotan jakingo dugu auzoko ikastetxe publikoan eskolaratzeko zoria egokitu zaigun; izan ere, eskaera guztiei aurre egiteko plaza nahikorik ezean, zozketaren bidez banatuko dituzte daudenak. Pentsa genezake Hezkuntza Sailaren

prebisio falta dela gutxienez ume adina plaza ez eskaintzea, baina erakundeek baliabideak dauzkate auzune batean bi urteko zenbat haur dauden jakiteko, eta zenbat plaza beharko diren aurreikusteko. Hala egiten ez badute, ume guztiak sare publikoan eskolaratzeko eskubidea ez bermatzeko hautu estrategikoa egiten badute, itunpeko ikastetxeak balizko bezeroez elikatzeko delakoan nago. Eta, bide batez, haurrak ahalmen ekonomikoaren eta jatorriaren arabera sare publikoan eta pribatu-itunpekoan bereizteko. Errealitateak horixe erakusten du, behintzat. Bitartean zozketaren esperoan gaude, eskubide-loteriak oraingo honetan zoria ekarriko ote digun zain. •